



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko irailaren 24a

93. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Nafarroako Osasun Mentalari buruzko Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (9. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzekoa eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (13. or.).
- Foru Lege proposamena, mendetasun-egoera aitortzeko prozedura ezartzen duena eta Nafarroan mendetasun egoera balioesteko ekipoak taxutzeko langileen antolamendua, eginkizunak eta araubidea ezartzen dituena. Zuzenketak aurkezteko epea (13. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza eman diezaien eskola-adinean ezgaitasun intelektuala eta mendetasuna duten hurrei. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, ezgaitasuna duten pertsonen laguntzeko 2010etik 2013ra bitarteko plan integrala onetsi ez izanari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (17. or.).
- Galdera, eskola-adinean ezgaitasuna duten pertsonen udan eguneko laguntza emateari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe itunduetan lerroak handitzeko darabiltzan irizpideei buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (18. or.).
- Galdera, 117/2010 Foru Aginduari jarraikiz ikastetxe pribatuekin eginiko itunek aurrekontuan izanen duten eraginari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (19. or.).

- Galdera, Kultur Bonoaren programari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (20. or.).
- Galdera, “Kultura, eskura” programari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (21. or.).
- Galdera, “Baluarteko Ganbera Aretoan Nafarroako taldeak programatzea” izeneko kontusailari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Nafarroako ikastetxeetan, 2010-2011 ikasturteari begira, hiru urtetik gorako haurren ratioak eta egokitzapenak errespetatzeari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (23. or.).
- Galdera, Nafarroako Artista Gazteak Baluartean programari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Txikizkako Merkataritza Modernizatzeko Planari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (24. or.).
- Galdera, 2015era bitarteko Energia Planari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (24. or.).
- Galdera, arrisku kimikoen osagarria dela-eta administrazioaren isiltasuna jaso duten eskabideei eta gora jotzeko errekurtsoei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (25. or.).
- Galdera, Ultzaman, Odietan, Atezen eta Lantzen ur-murrizketarik egon ez dadin Gobernuak hartu dituen neurriei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (25. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2009ko azaroaren 13ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko irailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Lege proposameneko artikulua bakarreko 2. idatz-zatiaren ordez hauxe proposatzen da:

«2. Ondokoa ageriko da 74.c) artikulua ordez:

c) Geriza-gabetasuneko egoeran dauden adingabeen adopzioari dagokionez, aurreko letran esaten denaz gain, beharrezkoa da, alde batetik, adoptatzaileen batez besteko adinaren eta adingabe adoptatuaren adinaren arteko aldea ez izatea 47 urte baino gehiagokoa, eta adoptatzaileetarikoa batek ere ez ditzala izan 65 urte baino gehiago. Betiere, adoptatzaileen adina oinarritzko parametro bat izan behar da egokitasunaren garapenean.»

Zioak: Babesgabezia daudela aitortu zaien adingabeak babesteko neurritzat hartu behar da adopzioa. Beste ezeren gainetik, lehentasuna

eman behar zaio adingabeek familia bat izateko eskubideari.

Inplikaturako elkarteek, adoptatuenean nahiz adoptatzaileenean, helarazi zigutenez, kontuan hartu behar da gurasoen adina mugatu beharra dagoela, adingabeek gurasotzat izan ditzaten erantzukizun horri dagokion bizi-zikloari gehiago hurbiltzen zaizkion pertsonak, seme-alaben hazkuntza egokiro garatzeko gaitasun osoa dutenak.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 74. artikuluko c) letra aldatzen duen 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“c) Geriza-gabetasuneko egoeran dauden adingabeen adopzioari dagokionez, aurreko letran esaten denaz gain, beharrezkoa da, alde batetik, adoptatzaileen batez besteko adinaren eta adingabe adoptatuaren adinaren arteko aldea ez izatea 47 urte baino gehiagokoa, eta adoptatzaileetarikoa batek ere ez ditzala izan 65 urte baino gehiago.”

Zioak: Gure ustez, adoptatzaileen adina oinarritzko parametro bat izan behar da egokitasunaren garapenean. Hortaz, eta zenbait erakundek eta adituk baliatutako irizpideari jarraikiz, 47 urteko aldea ezartzen da irizpide gisa.

3. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Lege proposameneko artikulua bakarreko 3. idatz-zatiaren ordezkari proposatzen da:

«3. 79. artikulua aldatu egingen da. Hona hemen testua:

“79. artikulua. Nazioarteko adopzioa.

Oro har, ez da izapidetzeko onartuko nazioarteko adopzioeko eskabide bat baino gehiago.

1. Salbuespenez, atzerrian adingabea adoptatzeko prozesua errazte aldera, nazioarteko adopzioeko beste eskabide bat izapidetzea onartu ahalko da beste herrialde batean baldin eta, lehen herrialdean espediente sartzu zenetik hiru urte iraganda, ez bada adingabe bat esleitu eskatzaileei egozterik ez dagoen arrazoiak direla eta.

2. Nazioarteko adopzioeko egokitasunari buruzko bigarren ziurtagiria jasotzeko, norberaren nahiz familiaren egoeraren berrazterketa egin beharko da alde aurretik.

3. Nazioarteko adopzioeko bigarren eskabidea egiten denean, izapidetze bikoitza dagoela jakinarazi beharko zaio adopzioa eskatu zaion bigarren herrialdeari.

4. Nazioarteko adopzioeko bi eskabidealdi berean izapidetzen baldin badira eta Foru Komunitateko Administrazioak adostasuna ematen badio bi herrialdeetako batetik heldu den adingabe bat esleitzeari, interesdunei entzunaldia eman ondotik, administrazio-ebazpen bidez aginduko da izapidetzen ari den beste eskabidearen espediente artxibatzeke.»

Zioak: Azken urteotan asko aldatu da Espainian nahiz nazioarteko adopzioeko herrialdeetan adopzioaren testuingurua, batez ere adopzioek garapen ekonomikoarekin zerikusi handia dutelako. Haurrei familia harrera dela eta laguntza emateko sistema nazionalak eta nazioarteko adopzioa indartzearen ondorioz, garapen bidean diren herrialde asko ez daude prest haien adingabeek herrialdea utzi behar izateko.

Garrantzitsuena da, hartara, adoptatzaileak ondo prestatzea adopzio prozesuan, adingabearen premiei erantzuteko prestakuntza eta prestakuntza mental eta psikologikoarekin.

4. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 79. artikulua aldatzen duen 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hiru idatz-zati gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. Oro har, ez da onartuko nazioarteko adopzioeko eskabide bat baino gehiago.

2. Salbuespenez, atzerrian adingabea adoptatzeko prozesua errazte aldera soilik, nazioarteko adopzioeko bigarren eskabide bat onartu ahalko da beste herrialde batean baldin eta, lehen herrialdean espediente sartzu zenetik hiru urte iraganda, ez bada adingabe bat esleitu eskatzaileei egozterik ez dagoen arrazoiak direla eta. Aldez aurretik, haren egoera pertsonala eta familiarena aztertuko dira herrialde baterako nazioarteko adopzioa lortze aldera bigarren egokitasun ziurtagiri bat lortzeko, eta herrialde horri izapide bikoitzaren berri emanen zaio.

3. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako kasuan, Foru Administrazioak herrialdeetako batetik heldu den adingabe bat esleitzeko adostasuna emanaz gero, berriazko ebazpen bidez aginduko da, interesdunei entzun ondotik, izapidetzen ari den beste eskabideari buruzko administrazio espediente artxibatzeke.”

Zioak: Gure ustez, garrantzitsuena da adopzio eskabidea hartzen duen herrialdearen zama burokratiko arintzea. Hortaz, bidegabea da espediente bikoitza, eta soilik kasu jakinetan eta justifikatuetan izan daiteke baliozkoa.

5. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

79. artikuluari bigarren lerrokada gehitu zaio. Hona hemen testua:

“Oro har, ez da izapidetzeko onartuko nazioarteko adopzioeko eskabide bat baino gehiago. Hala ere, aldi berean onartuko dira izapidetzera nazioarteko adopzio eskabide bat eta nazioarteko adopzioeko eskabide bat.

Salbuespenez, nazioarteko adopzioeko bigarren eskabide bat onartu ahalko da beste herrialde batean baldin eta egokitasun ziurtagiria eman zenetik edo egokitasun ziurtagiria lortzeko espediente ebatzi behar zen egunetik hiru urte iraganda, ez bada adingabe bat esleitu eskatzaileei egozterik ez dagoen arrazoiak direla eta. Aldez aurretik, haren egoera pertsonala eta familiarena aztertuko dira herrialde baterako nazioarteko adopzioa lortze aldera bigarren egokitasun ziurtagiri bat lortzeko, eta herrialde horri izapide bikoitzaren berri emanen zaio.

Nazioarteko adopzioko bi eskabide alde berean izapidetzen diren kasuan, Foru Administrazioak herrialdeetako batetik heldu den adingabe bat esleitzeko adostasuna emanaz gero, berariazko ebazpen bidez aginduko da, interesdunei entzun ondotik, izapidetzen ari den beste eskabideari buruzko administrazio espedientea artxibatuzeko.”

6. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Lege proposameneko artikulua bakarreko 4. idatz-zatiaren ordean haxe proposatzen da:

«4. 81. artikuluar 1. bis idatz-zatia gehitu zaio. Hona hemen testua:

“81. artikulua. Egokitasunaren deklarazioa.

1. bis. Adingabe bat adoptatu nahi duten pertsonen egokitasunari buruzko administrazio-ebazpena sei hilabeteko epean eman beharko da gehienez ere, eskabidea horretarako ezartzen diren bitartekoen bidez aurkezten denetik zenbatzen hasita, eta jasota geldituko da eskabidea aurkeztu izana. Ezarritako epea igaro eta ebazpenik eman ez baldin bada, Administrazioak adopzio-espedientea zertan den eta atzerapena zeri zor zaion jakinarazi behako die interesdunei.”»

Zioak: Ekidin beharra dago, ahal den neurrian, adingabearen segurtasuna edo behar bezalako laguntza eta garapena ziurtatzen ez duten pertsonen adopzioa adingabea. Egiaztatu beharra dago adopzioa egiteko hautagaiek osatuko den familiako kide guztiei maila guztietan on egiten dien adopzio-proiektu bat dutela. Kontuan hartu beharra dago bereziki familia adoptatzaileak seme-alaba biologikoak baldin baditu.

7. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 81. artikulua aldatzen duen 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

81.1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Beste idatz-zati bat, 1) bis, gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

“1 bis) Adoptatzeko prest dauden pertsonen egokitasunari buruzko administrazio-ebazpena sei hilabeteko epean eman beharko da gehienez ere, administrazio publikoan jasota geratzeko moduan aurkezten den edozein bide baliatzen denetik aitzina. Administrazio-ebazpena ezarritako epean ematen ez bada, Administrazioak jakinarazi eta azaldu beharko die interesdunei, jasota geratzeko moduren batean, zertan den espedientearen izapidetzea eta atzerapenaren zergatia.”

Zioak: Parlamentu-talde hau ez dago ados gisa horretako izapide bat administrazioaren isiltasunaren bidez ebaztearekin. Gure ustez, Foru Administrazioak sei hilabeteko epean ebatzi behar du egokitasunaren izapidea, baina aurkeztutako lege proposamenaren hasieran jasotzen ez diren beste bide batzuen bidez.

8. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. idatz-zatiak honako testu hau izango du:

81. artikulua aldaketa. Hona testua:

“81. artikulua. Egokitasunaren deklarazioa.

1. Eskatzaileek elkarrizketa batzuk egin beharko dituzte Foru Komunitateko administrazio organo eskudunak hautatzen dituen teknikariek, adoptatzeko egokitasun psikologiko eta sozialik ote duten erabakitzeke. Erregelamendu bidez, elkarrizketa horien kopurua eta ezaugarriak zehaztuko dira.

2. Egokitasunik eza deklaratu gero, horretarako zergatikoak aipatu beharko dira.

3. Egokitasun deklarazioa sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da, adopzio eskabidea eta harekin nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazio guztia familiaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren erregistroan edo Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein erregistroan edo tokitan sartzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori ebazpen espresa eman eta jakinarazi gabe iraganez gero, eskatzaileek aurkaratu edo berretsi ahalgo dute, eta ebazpen espresa jakinarazi ezenean, bi hilabeteko epean, onartutzat emanen da egokitasun deklarazioaren eskabidea. Egokitasun edo ezegokitasun deklarazioei buruzko ebazpen espres nahiz ustezkoen aurrean, interesdunek haien aurka egin ahalgo dute jurisdikzio zibilean, aldeztu aurretik inolako administrazio erreklamaziorik aurkeztu gabe.

Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. artikuluan ezarritako kasuan eta moduan bertan behera utzi eta luzatu ahalko da ebazpena emateko eta jakinarazteko legeak ezartzen duen gehieneko epea.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, ebazpen arrazoitu bidez, alde baterako eten ahalko du nazioarteko adopzioen espediente berrien izapidetzea herrialde jaki baterako, baldin eta heinik ez badago edo heinik eza aurreikusten bada dagoeneko izapidetzen ari diren adopzioen kopuruaren eta hartan egiten diren esleipenen artean, eta espediente kopurua mugatu behar baldin bada espedienteak izapidetu ahal izateko.

Horretarako arrazoi objektiboak baldin badaude, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, ebazpen arrazoitu bidez, nazioarteko adopzio eskabideen aurkezpena itxi ahalko du, edo aurrerago berriz ireki.

5. Arestiko idatz-zatian ezarritakoaren ondorioetarako, ebazpena interesdunei jakinarazi beharko zaie.”

9. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeari beste artikulua bat, 109.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“109. artikulua.

Nafarroako Gobernuak urtero ezarriko du zenbat diru jarri behar den laguntza-baliabideak abian jartzeko, adingabearen dolu-prozesua hobeki artatze aldera eta jatorriaren bilaketan aholku eta bitartekotza egite aldera.”

Zioak: Gure ustez, garrantzitsua da adingabearen bizi-prozesuak errespetatzea, gardentasun handienarekin hartuta alderdi guztiak eta tresna emozional nahiz administratibo guztiak jarrita horretarako.

10. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeari beste artikulua bat, 110.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“110. artikulua.

Foru lege hau indarrean sartu eta sei hilabete epean, kasuko departamentuak adopzioari buruzko prestakuntza arloko jarduerak taxutuko ditu, adoptatzaileei zuzenduak. Prestakuntza arloko lan hori pertsona adoptatuaren erronka eta beharrian berariazkoak izanen ditu ardatz.”

Zioak: Talde honen ustez, adingabe bat adoptatuko duten pertsonentzako laguntza eta prestakuntza programak taxutu behar dira.

11. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeari beste artikulua bat, 111.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“111. artikulua.

Foru lege hau indarrean sartu eta sei hilabete epean, Hezkuntza Departamentuak neurriak abiaraziko ditu, hezkuntza arloko langileen prestakuntza berariazkoari begira eta adopzioaren inguruko beharrian berariazkoari buruz sentsibilizatzeari begira, eskola inklusibo bat, familia-eredu guztiekiko begirunetsua, sendotze aldera.”

Zioak: Talde honen ustez, eskolan adopzioa behar bezala jorratzeko programak taxutu behar dira, integrazio hobea eta ezagutza sakonagoa lortze aldera.

12. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

“Xedapen gehigarri bakarra” jarri beharrean “Lehen xedapen gehigarria jartzea” proposatzen dugu.

Zioak: Xedapenaren izena aldatzeko arrazoa da beste xedapen gehigarri bat gehitu beharra dagoela, “bigarren xedapen gehigarria” hain zuzen ere.

13. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa.

Beste xedapen bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“Bigarren xedapen gehigarria. Foru Komunitateko Administrazioak lehenetsunez jasoko ditu bere aurrekontuetan seme-alaba adoptatuen beharrianak, jatorria bilatu nahi duten pertsona adoptatuei abandonu-sentimendua gainditzeko dolua bizitzeko laguntza, aholkua eta bitartekotza emateari dagokionez. Era berean, baldin eta guraso adoptatzaileek eskatzen badute, haien esku jarriko dira beharrezkoak diren profesionalak eta bitartekoak, gurasoen eskolak, hezkuntza-orientazioak eta komunikazioak, sortze aldera, abandonua eta adopzioa direla-eta sortzen diren arazoak konpontzen saiatzeko.”

Zioak: Guraso adoptatzaileen eta seme-alaba adoptatuen iritzia ezagutu ondoren, zerbait gehiago dakigu haien beharriaz buruz. Xedapen honek oinarritzkoenak diruditenak jaso nahi ditu.

14. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo xedapen iragankorreko bigarren lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: 81. artikuluari beste idatz-zati bat, 1 bis), gehitzeko zuzenketa adierazitakoarekin bat.

15. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Lehenengo xedapen iragankorreko bigarren puntua ordezteko proposatzen da. Hona testua:

Lehen xedapen iragankorra. Ebatzi gabeko espedienteak.

“Bigarren. Epe hori iraganda, Administrazioak interesdunei jakinarazi beharko die espedienteak zertan den eta zergatik ez den ebatzi, eta erantzun hori jasota geldituko da.”

Zioak: Gure ustez, 81. artikuluan –egokitasunari buruzko deklarazioa– adierazitako irizpideei eutsi behar zaie, kontraesanik egon ez dadin.

16. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

“Duela bi hilabete baino lehenago aurkeztutako egokitasun deklarazioak, ebatzi gabe badaude foru lege hau indarrean sartzen denean, gutxienez ere sei hilabeteko epean ebatziko dira. Epe hori iraganda, ulertuko da eskatzaileak egokitzen direla.”

Adopzio espedienteek lehenengo legediak aitortzen dizkien ondorioekin irauten dute, eta hori ez da oztopo izanen foru lege honetan ezarritako prozedura baliatuta egin ahal izateko, baldin eta bertan ezarritako baldintzak betetzen badira.”

17. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeari beste xedapen iragankor bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Laugarren xedapen iragankorra.

Hilabeteko epean hitzarmenak sinatuko dira entitate publikoekin eta familia adoptatzaileak eta pertsona adoptatuak ordezkatzeko dituzten elkarteekin, familien eta profesionalen prestakuntza sistematizatzeko.”

Zioak: Gure ustez, garrantzitsua da familien eta profesionalen prestakuntza sendotzea; hortaz, funtsezkoa da prestakuntza programak sistematizatea.

18. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeari beste xedapen iragankor bat, bosgarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Bosgarren xedapen iragankorra.

81.1 bis artikuluan ezarritako epeak betetze aldera, Departamentu eskudunak beharrezkoak diren baliabide tekniko eta ekonomikoak eta giza baliabideak ziurtatuko ditu.”

Zioak: Gure ustez, behar-beharrezkoa da egokitasunaren izapidea adierazitako epeetan egitea, adopzio prozesuak behar bezala funtziona dezan.

19. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen indargabetzailea aldatzeko zuzenketa.

Hauxe ordeztea proposatzen dugu:

“Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe geldituko dira foru lege honi kontra egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.”

Testuaren ordeze, honako testua jartzea proposatzen dugu:

“Xedapen indargabetzailea.

Indargabeturik gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, bereziki, 36/2010 Foru Dekretua, maiatzaren 31koa, Haurren eta Nerabeen Arretarako Kontseilua sortu eta haren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen.”

20. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenari gehiketa egiteko zuzenketa.

Testu berri hau gehitzea proposatzen da:

“Adopzioa babesgabezia-egoeran dauden haurrak babesteko neurri bat da, eta horren bidez lortzen dira emaitzarik onenak. Hori da joera, batez ere familiarik gabe gelditu diren adingabeen kasuan.

Adopzioa ez da antzutasunaren arazorako konponbidea. Adopzioa ez da gizarte-ekintza bat, bai zik eta babesik gabeko haurrek familia bat izateko duten eskubidea, ezen ez ondorengoak izateko inoren eskubidea.

Seme-alaba adoptatuen eta biologikoen artean ezberdintasunak daude, eta artatu beharreko premia bereziak dituzte. Pertsona adoptatuak abandonuaren biktima dira, eta horri gehitu ohi zaizkio zabarkeria, tratu txarrak, abusuak eta luzaroan erakunde batean barnealdian egon izana. Hartara, familia adoptatzaileek –terapeutikoak, alegia– soilik konpontzen ahal ditu eta konpondu behar ditu pertsona horiek pairatutako kalteak.

Adoptatuek premia ugari izan ohi dute. Lehenengo eta behin, abandonuaren biktimaren estatusa aitortzea, gutxitan aitortzen baita; horrek eskatzen du profesional adituek informazioa, prestakuntza eta babesa ematea familiei, pertsona inplikatuak –adoptatuen eta adoptatzaileen– arteko atxikimendua lortze aldera.”

Zioak: Izapidetzen ari den lege proposameneko zioen azalpenean ondoko hausnarketa egin beharra dago: zer da kaltetuen ustez (legea haiei begira egina dago) adopzioa? zer ezaugarri ditu? zer premia dituzte adopzioan interesa dutenek, gurasoek eta seme-alabek?

Nafarroako Osasun Mentalari buruzko Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Osasun Mentalari buruzko Foru Lege proposamenari, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duena, aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2010eko apirilaren 27ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko irailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Eremu soziosanitarioa ezin da osasun mentalean soilik sartu, eta ezin da, horrenbestez, Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren menpe egon.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1.3 artikuluan, "Osasun Mentaleko Zentroak" ageri orde "Erkidego-laguntza eta Osasun Mentaleko Zentroak" ageriko da.

Zioak: Uste dugu izendapen egokiagoa dela.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1.e artikuluan ondoko testua sartzea proposatzen da:

- Eraginkortasuna
- Efizientzia"

Zioak: Osatuagoa gelditzen da.

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua –Legearen xedea– aldatzeko zuzenketa.

Beste letra bat sartzea proposatzen dugu. Hona:

“..) Osasun Mentaleko laguntza-zerbitzu diziplina anitzekoak sortzea, psikiatreek, psikologo klinikoek, erizaintzako diplomadunek, gizarte-langileek, okupazio-monitoreek, erizaintzako laguntzaileek eta planen helburuak ziurtatzeko egoki irizitako bestelako langileek osatuak. Drogamenpekotasun Plana, Espetxe-psikiatriako Plana, Nerabeei Laguntza Emateko Plana eta sor daitezkeen bestelakoak.”

Zioak: Legearen xedean hitz egiten da antolamendu eta aurrekontu arloko neurriak ezartzeaz, baina ahantzi egiten dira benetako garrantzia dutenak, hala nola joratu beharreko planak.

5. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa.

Artikulu bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“xx. artikulua. Osasun mentalean jarduteko arloak.

1. Gurasoen eta eskolaren egitekoa indartzea pertsonaren bizitzaren lehen urteetan, gaixotasun mentalaren detekzio goiztiarrerako modu gisa.

2. Osasun mentala sustatzea lanean.

3. Zahartze mental osasungarria babestea.

4. Gaixotasun mentala izan dezaketen arrisku-taldeekin lan egitea.

5. Depresioari eta suizidioari aurrea hartzea.

6. Indarkeriari eta substantzia kaltegarrien kontsumoari aurrea hartzea.

7. Espetxean gaixo mentalei laguntzen esku hartzea.

8. Desabantaila sozialak murriztea eta estigmatizazioari aurrea hartzea, Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren programen bidez.”

Zioak: Gure ustez, egokia da testua horrela agertzea.

6. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa.

Artikulu bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“xx. artikulua. Osasun mentaleko programen eta politiken eraginaren ebaluazioa.

Osasun mentalera bideratutako aurrekontuaren % 10 egindako programen eta politiken eraginaren ebaluaziora eta kontrolera bideratu behar dira. Emaitzak aurrerago egiten diren azterketei gehituko zaizkie, programak hobetzeko. Osasun mentalean duten eraginari buruzko ebaluazioak eta auditoretzak egin beharra ezartzen da, unean uneko egoera aztertzeko, halako moduz non behar bezalako aurrerabidea ez dakarten jarduketak zuzenduko diren.”

Zioak: Gure ustez, egokia da testua horrela agertzea.

7. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Eremu soziosanitarioa ezin da osasun mentalean soilik sartu, eta ezin da, horrenbestez, Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren menpe egon.

8. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. Osasun Mentaleko Zuzendaritzak lehentasun gisa izanen du Nafarroako Osasun Mentaleko Plana prestatu, gaurkotu eta abian jartzea, baliabide berekiekin eta Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuaren Plangintza Zerbitzua-ekin lankidetzan.”

Zioak: Gure ustez, ingurune publikoan kaudimena frogatua duten giza baliabideak ditugu, eta plana taxutzeko ardura har dezakete. Plana gure errealitaterako egokia eta doitua izan liteke, enpresa pribatu bati esleitzeko beharrik gabe.

9. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2.4 artikuluan, “Osasun Mentaleko Zentroen Arloko Zerbitzua” ageri ordez “Erkidego-laguntzaren Arloko Zerbitzua eta Osasun Mentaleko Zentroak” ageriko da.

Zioak: Uste dugu izendapen egokiagoa dela.

10. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3.2 artikuluan, “Osasun Mentaleko Zentroen Arloa” ageri ordez “Erkidego-laguntzaren Arloa eta Osasun Mentaleko Zentroak” ageriko da.

Zioak: Uste dugu izendapen egokiagoa dela.

11. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluan, “Drogamenpekotasunen Eguneko Zentroa” ageriko da “Drogamenpekotasunen Eguneko Ospitalea” ageri ordez.

Zioak: Gure ustez, izendapen hori egokiagoa da, hain zuzen ere:

- Osasun arloan gisako funtzioak betetzen dituzten zerbitzuen izendapena bateratzeko.

- “Ospitaleratze partziala” da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak gure jarduna aipatzeko darabilen izendapena.

- Mendetasunen Eguneko Zentroekiko nahasketak ekiditeko, batez ere psikogieria arloko mendetasunekikoak.

12. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa.

Hirugarren artikuluarri –”3. artikulua. Une hone-tan, honako baliabideek osatzen dute Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren Sarea:”– ondokoa gehitzea proposatzen dugu:

- Etxeko ospitalizazioa.
- Espetxeko laguntza psikiatrikoa.”

Zioak: Modu egonkorrean egon beharreko bitarteko baliabideei hobeki egokitzen zaiola ematen du.

13. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“Zuzendaritza Batzordea honakoek osatuko dute: Osasun Mentaleko zuzendariak, arloko laguntza-zerbitzuetako buruek, Kudeaketa Zerbitzuko buruak eta Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko buruak.”

Zioak: Eremu soziosanitarioa ezin da osasun mentalean soilik sartu, eta ezin da, horrenbestez, Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren menpe egon.

14. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Eremu sozio-sanitarioa ezin da osasun mentalean soilik sartu, eta ezin da, horrenbestez, Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren menpe egon.

15. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11.1 artikuluan, “Osasun Mentaleko Zentroen Arloa” ageri orde “Erkidego-laguntzaren Arloko Zerbitzua eta Osasun Mentaleko Zentroak” ageriko da.

Zioak: Uste dugu izendapen egokiagoa dela.

16. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa.

Hamabigarren artikulua osoa kentzea proposatzen da –”12. artikulua.- Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko burua”–.

Zioak: Ez dugu ikusten erantzukizun horren beharra, langile kopurua beharrik gabe igotzen delako. Lan-taldeetan sinesten dugu, ez lanbideetan.

17. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

“Osasun Mentaleko okupazio-terapeuten ordezkari bat” sartzeari 17. artikuluan, Laguntzako Batzar Teknikoan hautaturiko batzarkideen artean.

Zioak: Gaur egun, okupazio-terapeutak osasun mentaleko zerbitzu guztietan lan egiten du, hala publikoetan nola pribatuetan, salbu eta osasun mentaleko zentroetan; Laguntzako Batzar Teknikoan ordezkatuta daude osasun mentaleko sarean lan egiten duten gainontzeko langile teknikoak, salbu eta okupazio-terapeuta.

18. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Zioen azalpeneko hamaikagarren lerrokadari ondoko testua gehituko zaio:

“Programa berri hauek –esate baterako, patologia dualeko unitateak, espetxe-psiikiatriako unitatea, segurtasun handiko unitatea, nerabeentzako subakutuen unitatea, drogazaleen unitatea, haur eta gazteen unitatea, etorkinentzako programak, bazterkeria pairatzeko arrisku gehien duten per-

tsonentzakoak, etxerik gabekoentzakoak– legean jasota ageri behar dute, lan-ildoak zehazte aldera, zainketen jarraitutasuna ziurtatze aldera eta laguntzaren zatikatzea ekidite aldera.”

Zioak: Ematen du testuan azaletik adierazitako zenbait kontu zehaztu beharra dagoela.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzekoa eta Nafarroan Giza Ehun eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2010eko irailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzekoa eta Nafarroan Giza Ehun eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentutaldeak aurkeztu eta 2010eko maiatzaren 25eko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzekoa

eta Nafarroan Giza Ehun eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2010eko urriaren 19ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Foru Lege proposamena, mendetasun-egoera aitortzeko prozedura ezartzen duena eta Nafarroan mendetasun egoera balioesteko ekipoak taxutzeko langileen antolamendua, eginkizunak eta araubidea ezartzen dituen.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2010eko irailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, mendetasun-egoera aitortzeko prozedura ezartzen duena eta Nafarroan mendetasun egoera balioesteko ekipoak taxutzeko langileen antolamendua, eginkizunak eta araubidea ezartzen dituen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentutaldeak aurkeztu eta 2010eko ekainaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Mendetasun-egoera aitortzeko prozedura ezartzen duena eta Nafarroan mendetasun egoera balioesteko ekipoak taxutzeko langileen antolamendua, eginkizunak eta araubidea ezartzen dituen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2010eko urriaren 19ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147.

artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza eman diezaien eskola-adinean ezgaitasun intelektuala eta mendetasuna duten haurrei.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita laguntza eman diezaien eskola-adinean ezgaitasun intelektuala eta mendetasuna duten haurrei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

FEAPS Nafarroa da ezgaitasun intelektuala duten pertsonen eta haien familien alde lan egiten duten elkarten eta entitateen Nafarroako federazioa. Nafarroan, sektore horretako erakunderik aipagarriena da. Gobernu kanpoko erakundea da, irabazi asmorik gabea, eta gaur egun 13 elkarte eta entitatek osatzen dute.

FEAPSen helburuen artean dago babesa eta aukerak ematea ezgaitasun intelektuala duen per-

tsona bakoitzak eta haien familiek kalitatezko bizi-proiektua gara dezaten, bai eta eskubide guztiak dituzten herritar gisa integra daitezen sustatzea, betiere kontuan hartuta pertsonak direla haien lanaren ardatza.

Aipatu federazioko ordezkariekin eginiko lan bilera batean, aukera izan genuen ezagutzeko zenbateko hutsuneak dauden gure gizartean ezgaitasun-maila desberdinak dituzten pertsonen aisialdia planifikatzeko beharizanak asetzeko, bai eta aisiarako eskubidea eta familiek oporraldietan lana eta familia-bizitza bateratu ahal izateko dituzten beharrak asetzeko ere. Pertsona horiek beren kezkaren berri eman ziguten, eta esan ziguten kexu direla beren seme-alabentzat ez dagoelako aisialdirako eskaintzarik oportetan, gehienetan jardueren eskaintzatik kanpo geratzen direla eta horrek esan nahi duela familiak direla erakunde publikoek eskaintzen ez dituzten jarduerak antolatu eta ordaindu behar dituztenak.

Aurkeztu zizkiguten erabaki proposamenak bat zetozen Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Arreta Integrala Emateko Planaren proiektuan jasotako helburuekin. Hona hemen horietako batzuk:

- Ezgaitasunak dituzten pertsonen bizimodu independentea izan dezaten sustatzea, ahalik eta gehien integra daitezen gizartean.

- Guztientzako diseinua eta irisgarritasun unibertsala sustatzea.

- Aukera berdintasuna ziurtatzea aisialdiaren erabilerari eta komunitateko inguruneak aisiarako bideratzen dituen baliabideen erabilerari dagokionez.

- Ezgaitasunen bat duten pertsonen bizi kalitatea eta haien familia hobetzea.

- Lurralde-oreka bultzatzea baliabideen deszentralizazioaren bidez.

– Gizartearen ardurakidetzat sustatzea, pertsona horiek gizartean integratzeari eta ez baztertzeari dagokienez.

Eta, gainera, kontuan hartu behar dugu Nazio Batuen Erakundeak 2006an onetsitako eta Espainiak urtebete geroago berretsitako nazioarteko ituna, Ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideei eta horien protokolo fakultatiboari buruzkoa. Itun horren oinarri filosofikoa honela laburbil daiteke: “Ezgaitasunak dituzten pertsonak subjektuak dira, eskubideen titular diren herritarrak, parte-hartzaileak eta erantzukizuna dutenak, haien bizitza pertsonalaren erabateko gidaritza beren gain hartzen dutenak”. Horri gehitu beharko zaizkio pertsona horiek dituzten beharrianak, mendekotasun mailaren arabera.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urteko 365 egunetan laguntza eman diezaien eskola-adinean ezgaitasun intelektuala eta mendetasuna duten haurrei, eta arreta berezia eman diezaien ondoko alderdiei:

- “En verano también” edo antzeko beste proiektu bat, ezgaitasun intelektuala eta mendetasuna duten pertsonen bideratzen dena, Nafarroa osoan ezartzea 2011n, ziurtaturiko zerbitzu gisa, eta gizarte zerbitzuen zorroan sar dezan, beharrezkoa den zuzenketaren bidez.

- Hezkuntza bereziko ikastetxeek arreta eskaintzea oporraldietan, hezkuntza premia berezi handienak dituzten ikasleengan pentsatuta, oporraldietan –Gabonetan, Aste Santuan eta udan– pertsona horiek hartu ahal izateko, barnetegi edo eguneko eskola moduan. Horrekin lotuta, beharrezkoa da Nafarroan hezkuntza bereziko ikastetxe gehiago

egitea, eta horietako batek behintzat arreta eskaintzen urteko 365 egunetan.

- Oxigena moduko jarduerak egin daitezela, oso interesgarria baita; izan ere, ikasleentzako jarduerak, hezkuntzaren arlokoak ez direnak, eskaintzen ditu oporraldian: ekainaren azken astean, uztailean, abuztuan eta irailaren lehenengo astean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, entitate publikoen bidez eta toki entitateekin lankidetzan, susta dezan ezgaitasun intelektuala duten pertsonen parte-hartzea antolatzen dituen aisiarako eta kirol-jardueretan, eta horrela bete dezan Nazio Batuen Erakundeak ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideei buruz eginiko nazioarteko konbentzioa pertsona horientzat onetsitako eskubidea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, entitate publikoen bidez eta toki entitateekin lankidetzan, bideak ezar ditzan ezgaitasun intelektuala duten pertsonen eta haien familien parte-hartzea sustatzeko lana eta familia bizitza bateratzeko antolatzen dituen jarduera guztietan. Bereziki, premiatzen du zabal dezan elkar-teen eta Administrazio Publikoak antolatutako zain-tzaileei atsedena emateko programen eskaintza.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du guztiek diru kopuru egokia bidera dezan ekimen eta programa horiek gauzatzeko, eta, horretarako, urte bat baino gehiagorako itun eta hitzarmenak egin ditzan programa horien garapenarekin konprometituriko entitate eta elkar-teenkin.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

F saila:
GALDERAK

Galdera, ezgaitasuna duten pertsoneri laguntzeko 2010etik 2013ra bitarteko plan integrala onetsi ez izanari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, ezgaitasuna duten pertsoneri laguntzeko 2010etik 2013ra bitarteko plan integrala onetsi ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak ahoz erantzun dezan:

2010-2013 urteetarako Ezgaitasuna duten Pertsonen Arreta Integralerako Planari buruzko galdera

• Zergatik ez da oraindik onetsi aipatu dokumentua?

Iruñean, 2010eko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, eskola-adinean ezgaitasuna duten pertsoneri udan eguneko laguntza emateari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, eskola-adinean ezgaitasuna duten pertsoneri udan eguneko laguntza emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako konseilariak ahoz erantzun dezan:

Eskola-adinean ezgaitasuna duten pertsonei udan eguneko laguntza emateari buruzko galdera.

• Zure departamentuak ba al du asmorik gizarte zerbitzuen zorroa aldatzeko, eskola-adinean ezgaitasuna duten pertsonei udan eguneko laguntza ziurtatze aldera? Hala bada, noiz onetsiko da gizarte zerbitzuen zorroa arautzen duen dekretuaren aldaketa?

Iruñean, 2010eko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe itunduetan lerroak handitzeko darabiltzan irizpideei buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe itunduetan lerroak handitzeko darabiltzan irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe itunduetan lerroak handitzeko darabiltzan irizpideei buruzko honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean ahoz erantzuteko:

• Zer irizpide erabili ditu Hezkuntza Departamentuak lerro gehiago irekitzeko ikastetxe itunduetan, eskualdeko ikastetxe publikoetan hezkuntza-eredu bereko ikaspostuak egonda ere?

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, 117/2010 Foru Aginduari jarraikiz ikastetxe pribatuekin eginiko itunek aurrekontuan izanen duten eraginari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, 117/2010 Foru Aginduari jarraikiz ikastetxe pribatuekin eginiko itunek aurrekontuan izanen duten eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran erantzuteko:

Irailaren 14an, asteartearekin, Eskolatzeko Batzordeak bilera egin zuen Tuteran, ikasleak ikastetxe desberdinetan, publikoetan nahiz pribatu itunduetan, modu orekatuan banatzea erabakitze aldera.

Eskolatzeko Batzordea honako hauek osatzen dute: ikastetxeen ordezkariak, udalak, gizarte langile batek, CCOO eta SEPNA sindikatuek, Herrikoa eta Concapa gurasoen elkarteak eta Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuko zuzendaritzak.

Tuterako zazpi ikastetxeetako zuzendariak adierazi zuten ez zirela gehiago joango Tuterako Eskolatzeko Batzordera, UPNren Gobernuaren eta ikastetxe itunduen arteko hitzarmen-politika aldatzen ez den bitartean.

- Nafarroako Aurrekontu Orokorretako zenbat diru bideratu da 117/2010 Foru Aginduaren ondorioz ikastetxe pribatuekin eginiko itun berrietara?

- Nafarroako Gobernuak uste du hitzarmenei buruzko "egintza burutuen" politikaren bidez ziurtatuta dagoela ikasturtea hasi eta gero etortzen diren ikasleen banaketa?

Iruñean, 2010eko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Kultur Bonoaren programari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Kultur Bonoaren programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marco-tegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ahozko galdera hau egiten du, "Krisiaren aurkako Plana-Kultur Bonoa" izeneko kontusailaren garapenari buruzkoa, Osoko Bilkuran erantzuteko.

Iragan otsailaren 10ean, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordeak aho batez onetsi zuen PSN-PSOEk aurkezturiko mozio bat, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen "Kultur Bonoa" izeneko programa abian jar zezan. Programaren oinarriko helburua zen Nafarroako gazteei erraztasunak ematea foru erkidegoan eskaintzen diren kultur ondasun eta zerbitzuak eskura zitzaten.

Aurretik, Nafarroako Gobernuak eta PSN-PSOEk sinatu zuten aurrekontu-hitzarmenaren ondorioz, 500.000 euroko zuzenketa bat sartu zen, PSNren ekimenez, programa horri estaldura ekonomikoa emateko.

Apirilaren 22ko 46/2010 Foru Aginduaren bidez –maiatzaren 28ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen– onetsi zen dirulaguntzen deialdia, bai eta deialdia arautzeko oinarriak eta egin beharreko gastua ere. Gure taldeak dakienaren arabera, udal batzuk behin eta berriro saiatu badira ere, iragan diren hilabeteetan Gobernuak ez du inolako urratsik egin aurrekontuan diru kopuru garrantzitsua duen berrikuntza hori ezagutarazteko.

Hori guztia ikusirik, hona galderak:

• Zer neurri hartu ditu Gobernuak aipatu programa ezagutarazteko? Zein da programak gaur egun duen garapena? Pertsona onuradunen eta emandako diru kopurua xehakatzeko nahiko nuke. Gobernuak uste du programa modu egokian gartzten ari dela? Gobernuak ba al du asmorik neurri gehigarririk hartzeko, programaren ezagutza bultzatu eta jarritako helburuak lortze aldera?

Iruñean, 2010eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, “Kultura, eskura” programari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, “Kultura, eskura” programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ahozko galdera hau egiten du, “Kultura, eskura” programaren garapenari buruzkoa, Batzordean erantzuteko:

Nafarroako Gobernuaren eta PSN-PSOEn artean sinaturiko aurrekontuei buruzko akordioaren ondorioz, aurrekontuetan 300.000 euroko kontusaila jasoko zen, PSNren ekimenez, “Kultura,

eskura” izeneko programari estaldura ekonomikoa emateko. Kontusail hori sartzeko proposamena aho batez onetsi zen. Aipatu programaren xedea zen kultura dinamizatzea eta Nafarroako landa eremuko herritarrei ageriko babesa ematea, eta, zeharka, talde, artista eta erakundeei laguntzea.

Irailaren 10eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean –aurrekontuak onetsi eta zortzi hilabete eta erdira, eta Parlamentuak deialdi guztiak abian jartzeko aho batez ezarritako epea amaitu eta bost hilabete eta erdira–, Kultura eta Turismo kontseilariaren uztailaren 20ko Foru Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez onetsi baitziren dirulaguntzen deialdia eta hura arautzeko oinarriak.

Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

- Zer arrazoik justifikatzen du “Kultura, eskura” programari buruzko deialdia egitea aurrekontua onetsi zenetik bederatzi hilabetera eta hasieran aurreikusitako data baino sei hilabete geroago? Eskaerak aurkezteko epea 2010eko abenduaren 2an amaitzen da. Nafarroako Gobernuak uste du arrazoizkoa dela urteko deialdi bat 83 egunez bakarrik egotea indarrean? Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak aipatu programa ezagutarazteko eta herritarrek programaren onurak eskuratu ahal izateko?

Iruñean, 2010eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, “Baluarteko Ganbera Aretoan Nafarroako taldeak programatzea” izeneko kontusailari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, “Baluarteko Ganbera Aretoan Nafarroako taldeak programatzea” izeneko kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ahozko galdera hau egiten du, “Baluarteko Ganbera Aretoan Nafarroako taldeak programatzea” izeneko kontusailari buruzkoa, Batzordean erantzuteko:

2009an, PSN-PSOEek zenbait galdera egin zizkion Nafarroako Gobernuari, Baluarteko Ganbera Aretoaren erabilera zein zen jakiteko. Gobernuaren erantzunak argi utzi zigun aretoa oso gutxi erabiltzen zela, eta bazela aukera programa osagarriak antolatzeke. Horren ondorioz, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen PSN-PSOEren mozio bat, zeinaren bidez Gobernuak premia-tzen baitzen jarduera plan bat abian jar zezan, Nafarroako kultur taldeek areto hori erabili ahal izateko.

Halaber, Nafarroako Gobernuak eta PSN-PSOEek lorturiko aurrekontuei buruzko akordioari esker, alderdi honek zuzenketa bat aurkeztu zien 2010eko aurrekontuei, gainerako alderdiek aho batez onetsi zutena. Horren arabera, 100.000 euroko kontusaila onetsi zen programa hori gauzatzeko.

Geroago, hedabideen bitartez jakin dugu arazoak egon direla programa gauzatzekoan. Aurreikusitako bederatzi emanaldietatik bost egiteke daudenez, hau jakin nahiko nuke:

• Zein da programarako aurreikusitako 100.000 euroen banaketa xehaketa? Gobernuarentzat arrazoizkoa al da talde batzuek parte hartzeari uko egin izana? Zenbat ikusle izan dira orain arteko emanaldietan? Zer irizpide erabili da uko egin dioten taldeen ordezkioak hautatzeko? Nafarroako Gobernuak hartu behar al du neurririk aipatu programari bultzada berria emateko?

Iruñean, 2010eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Nafarroako ikastetxeetan, 2010-2011 ikasturteari begira, hiru urtetik gorako haurren ratioak eta egokitzapenak errespetatzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako ikastetxeetan, 2010-2011 ikasturteari begira, hiru urtetik gorako haurren ratioak eta egokitzapenak errespetatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari M^a Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Alberto Catalán Higeras jaunak Hezkuntza Batzordean erantzun dezan:

- Nafarroako ikastetxeetan, 2010-2011 ikasturteari begira, hiru urtetik gorako haurren ratioak eta egokitzapenak errespetatu al dira?

Iruñean, 2010eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Maria Luisa Mangado Cortes

Galdera, Nafarroako Artista Gazteak Baluartean programari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Artista Gazteak Baluartean programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.

Nafarroako artista gazteak Baluartean

Galdera

Zein da kontseilariak "Nafarroako artista gazteak Baluartean" programaz egiten duen balorazioa?

Iruñean, 2010eko irailaren 16a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Txikizkako Merkataritza Modernizatzeko Planari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Txikizkako Merkataritza Modernizatzeko Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marco-tegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zein da Txikizkako Merkataritza Modernizatzeko Planaren egungo egoera?

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, 2015era bitarteko Energia Planari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, 2015era bitarteko Energia Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marco-tegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zein da 2015era bitarteko Energia Planaren egungo egoera?

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, arrisku kimikoen osagarria dela-eta administrazioaren isiltasuna jaso duten eskabideei eta gora jotzeko errekurtsoei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, arrisku kimikoen osagarria dela-eta administrazioaren isiltasuna jaso duten eskabideei eta gora jotzeko errekurtsoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Arrisku kimikoen osagarria dela-eta aurkezturiko zenbat eskaerak eta gora jotzeko errekurtsok jaso dute Administrazioaren isiltasuna eta/edo isiltasun bikoitza?

Arrisku kimikoen osagarria dela-eta aurkezturiko zenbat epaitu gabeko eskaerak jaso dute Administrazioaren isiltasuna eta/edo isiltasun bikoitza?

Iruñean, 2010eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Ultzaman, Odietan, Atezen eta Lantzen ur-murrizketarik egon ez dadin Gobernuak hartu dituen neurriei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Ultzaman, Odietan, Atezen eta Lantzen ur-murrizketarik egon ez dadin Gobernuak hartu dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

• Zer neurri ari da hartzen Nafarroako Gobernuak ez dadin ur-murrizketarik egon Ultzaman, Odietan, Atezen eta Lantzen?

Iruñean, 2010eko irailaren 16an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

